



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Espainiako gobernuaren presidente Rodríguez Zapatero eta Conde Pumpido fiskal burua.

Normalizazio politiko ezaren arabera hauteskundeak

Maiatzaren 27an burutuko dira Espainiako Estatuako udal eta foru hauteskundeak, baita Hego Euskal Herrian ere, beraz. Nafarroan gainera, foru parlamentu autonomikoa hautatuko da. Foro askoren gobernuak berritzeko garaia heldu da. “Gurean” alabaina, normaltasuna ez da heldu hogeita hamar urteko demokrazian. Bake eta normalizazio prozesuaren arabera hauteskundeak dira “gureak”, herri hauteskundeak ere deituak, normalizazio ezaren arabera.

MIKEL ASURMENDI

FORU ETA UDAL HAUTESKUNDE hauen jitea ezaugarritzen duena Alderdien Legea da, 2002ko ekainean sortua. Legea Terrorismoaren aurkako Itunaren ondoren heldu zen, Ituna PPK eta PSOEek bereziki sortua eta sostengatua izaki. Legea 2003ko hauteskundeetan hasi zen funtzionatzen, Hego Euskal Herrian aurkeztutako AuBren eta herri plataformen kandidatek bildu zituzten botoak baliogabetuak izan ziren. Harrezkero, hauteskunde hauteskun-

de, ezker abertzalearen hainbat hautagaitzek zori edota onarpen ezberdinak izan dituzte. 2004an, Espainiako Auzitegi Gorenak eta Konstituzionalak Europako azken hauteskundeetan Herritarren Zerrenda (HZ) elkargoaren zerrenda guztiak baliogabetu zituzten. 2005ean, berriz, Eusko Legebiltzarreko azken hauteskundeetan, Aukera Guztiak hautagaitza deuseztu zuten, aldiz, EHAKren botoak eta bilzarkideak onetsi zituzten. Hauteskun-

detik hauteskundera, legeak lege, jiteak jite, Euskal Herriko egoera sozio-politiko-juridikoa “normaltasunera” iristeko prozesu bidean dago. Bake eta normalizazio prozesuak aurrera egin ahala, hauteskunde hauek normaltasunaren barruan burutuko ote ziren irudipena edo ustea genuen. Usteak uste, oraindik ere, bake eta normalizazioaren arabera hauteskundeak bizitzen ari gara “gurean”. Gurean, diogu, Espainiako Estatu osoan ere hauteskundeak baiti-

IRAUN JASANEZINEAN AURRERA



Oraingo hauteskunde hauek egoera gehiago sutu besterik ez dute egingo, nire ustez. Ez dira izango gatazkaren konponketaren bidean erraldoiaren urratsa. Ezta gutxiago ere. Egoerak ez du, dirudienez, heldutasun maila nahikoa konponketari eusteko. Gaitz erdi erneguan gora egin ahala

heldutasun puntu horretara iristeko ibilbidean asko aurreratzen bada.

Pentsatzen egongo da asko Ezker Abertzalea zerbait egin behar larrian dagoela politikoki ito nahi ez badu. Eta beste asko egongo da pentsatzen Rodriguez Zapaterok zerbait egin beharko duela urtebete barru –aurreratzen ez baditu– etorriko diren hauteskundeetan irabazi nahi badu.

Azkenetik hasita, ordea, Zapaterok ez du uste urtebete barru datozen hauteskunde estatutal galduko dituenik, nahiz eta gure gatazkaren alorrean inolako aurrerapenik ez egin. Alderantziz, gehiago absolutua lor dezakeela pentsatzen omen dago, bere inguruko iturriek diotenez. Euskal gatazkak bere egitasmoetatik garrantzitsuen izaten jarraitzen duela, hori bai, baina epe luzeko gauza dela. Datorren legealdiz estatuaren zehar garatzeko modukoa, alegia. Ah, eta ETaren balizko beste eraso batez –edo gehiagoz– eusteko

modukoa izango dela, izatekotan. Ez dakit jarraian datozen tokiko hauteskundearen emaitzek azterketa horretatik aterako duten. Ikusiko dugu.

Ematen du Rodriguez Zapaterok uste duela euskal gatazkan ez dagoela urratsik egiteko modurik PPrik gabe. PP porrot elektoralean erorita etorriko omen litzateke alderdi horren estrategia aldatzea eta, ondorioz, hemengoari esperantza erreal batez eusteko garaia. Eta artean, irteerarik gabeko bideetan denok zorabiatzen.

Eta zorabiatu ere egingo gara, bai. Aurreko eszenategi instituzionala kafkianoa bazen, datorrena are okerragoa izango da. Ezker Abertzaleko batzuk bai eta besteak ez horrek ez du hoberik ekarriko. Ezin du ekarri. Salbuespenezko egoera politikoak normalizatzen barneratzeko saio bikoiztu honek ez du euskal gizartearen lekurik egingo, zorionez. Egoera sutu egingo du, hala-beharrez. Eta sutze horren ondorioz etor daitezkeen kalte larriek ez dutela zerikusirik gatazkarekin esan nahi izango zaigu, egunotan esaten ari zaizkigun bezala. Jiraka eta bueltaka ezagutzen dugun zurrumbiloi, bertatik irten ezinik.

Ea nola lantzen duten batzuek eta besteek iraun jasanezinean jarraitzeko diskurtsoa. Baina hori ere egingo dute, orain arte egin den bezala.

Xabier Oleaga Arando

ra. Gure artean baina, ez dirudi estatu mailako hauteskundeak direnik ere.

“Hurrengoetan bai”

“Hurrengoetan bai” esaldia ez da gurea, PSOEko Ramon Jauregirena baizik. Jauregik ezinezkotzat jo zuen 2003ko udal eta foru hauteskundeetan Batasunaren ordezkari ziren kandidatu-

rak onartzea: “Hemendik lau urtera burutuko diren hauteskundeetan, ziur aski, bai”, adierazi zuen ordea. Espainiako Kongresuko diputatu sozialistak. Legeak lege, Batasuna alderdia legez kanpoko izan arren, EHAKk Eusko Legebiltzarrean parte hartu ahal izatea aurrekari ona izan zen bake eta normalizazio prozesu bidean. Ramon Jaure-

gik aurreikusia ez da bete hala ere, edo ez da osorik bete, behintzat. Oraingoan, auzitegiek Abertzale Sozialisten (AB) zerrenda guztiak galarazi dituzte (232), baina EAE-ANVk aurkeztutako 252 zerrendetatik 119 onartuak izan dira. Edo, bestela esanda, 133 izan dira baliogabetuak.

Espainiako auzitegiak ANV legez kanpo uzteko ezbaian ari zirela –gure uste hutsa da– “independentisten ahotza bozkaleku guztietan izango dela” esan du ANVren idazkari nagusi Antxon Gomezek. Alderdi hau legezkota da, berak aurkeztutako zerrenda guztiak ez, ordea. Horra paradoxa. Gainera, ANVk biolentzia politikoa gaitzesten du. Batek pentsa lezake “Demokrazia da ala ez da”. Erdizka onartzen al da demokrazia? Hau da, 119 zerrendetako hautagaiak lege barruan daude eta 133 zerrende-

MARI SOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



119 zerrendetako hautagaiak lege barruan daude eta 133 zerrendetakoak ez.

Azken lau urteotan izan den *apartheid*a errepikatuko da, oraingoan erdizka, nonbait.

takoak ez. Azken lau urteotan izan den *apartheida* errepikatuko da, oraingoan erdizka, nonbait.

Prozesua nolako, hauteskundeak halako

Espainiako Gobernua bere asmo politikoen arabera erabiltzen ari da Alderdien Legea. Zenbait unetan legea eta katea sinonimoak bezala irudikatu daitezke: “Bake eta normalizazioaren *tempusa* eta funtsa nik kontrolatzen dut” pentsatu irudi du Zapatero presidentek. Hots, “partidaren kartak nik banatzen ditut” adierazi bide dio ETari. Alegia, “zuk Barajaseko atentauarekin prozesua bertan behera utzi duzu, bada, nik estutzen ditut Legearen kate-begiak”.

PSOEk eta PPK auzitegiaren daramaten borroka —eta kontrola— aipatu ohi da sarritan. Estatuko bi alderdi nagusiek, alabaina, judikaturren independentzia goraipatu izan dute. Dena dela ere, hauteskunde hauetan egin den legearen interpretazioa oso argigarria da zentzu horretan: Estatuko Auzitegi Gorenak nahiz Konstituzionalak Estatuaren abokatuak eta Fiskaltzak inpugnatutako ASren eta ANVren zerrenda berak baliogabetu dituzte. Bestela ikusita: bi auzitegiek zerrenda berberak onetsi dituzte. Botere legegilearen eta botere eragilearen arteko erabateko adostasuna eman da, alegia. Areago, epaileen erabakia aho batekoa izan da. Zer adierazten ote du honek guztiak? Bake eta normalizazio prozesua ez dela horren kolokan, pentsa dezake batek. Beste batek, aldiz, alderantzizkoa. Irakurle bakoitzak bere jukua izanen du.

Nolanahi den ere, alderdi politiko guztiek diotenez, hauteskundeak ez dira normaltasunaren barruan garatzen ari. Bakoitzak arrazoi desberdinak ditu, jakina. Bi dira orde, itxura batez, egoera soziopolitikoarekin, oro har, gus-tuen daudenak: PSOE eta EAJ. Hauek ere ezin dituzte horregatik ezkutatu euren “bainak” eta “arantzak”. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak berak (EAJ, EA eta EBk sostengatua) Alderdien Legeak ez duela sabaia jo

ohartarazi du. PP gobernuan zegoen garaiko mamu politikoak ez dira guztiz uxatuak, antza. PPren itzala luzea eta eraginkorra da oraindik ere. Zapaterok berak azpimarratu duenez, hauteskunde hauetarako inoiz baino zerrenda gehiago baliogabetu da. Legea bete ez ezik, legea katea da.

Arestian erran bezala, hauteskunde hauek Estatu mailan ere burutzen ari dira eta 2009ko hauteskunde orokorren aurreko *primariak* bezala hartu behar dira. PSOE ez da *pole positione* galtzeko deskuidatu. Espainiako presidentek “Alderdien Legea bete dela” adierazi du Gasteizko PSE-EEko mitinean. “Espainiako Gobernua gauzak ondo egiten ari da” berretsi du Zapaterok. Bitxia da gero, PSOE ez beste alderdi guztiek kritikatu dituzte epaileen azken erabakiak.

PSOEk eta EAJk prozesua eteteko nahia

ASren zerrenda sostengatutako ezker abertzalearen kideek bake eta normalizazio politikoaren prozesua eten nahi izatea leporatu diete PSOEri eta EAJri. Euren hitzetan, PSOEk EAJ “bidelaguna” dauka prozesuarekin amaitzeko. Batasunak ANVren aldeko botoa eskatu du Pernando Barrenaren ahotik. Cándido Conde Pumpido fiskalaren ustez, Batasunak botoa eskatzea ez da nahikoa ANV lege kanpo uzteko. PP izan ezik, denak ados. Batasuneko kide eta abokatu Jone Goirizelaia “demokraziarik gabeko udalik ez osatzeko” eskatu du, bestalde. Josu Jon Imazek, berriz, “PSOE eta Batasuna hauteskunde kanpaina hauetan jokoan ari dira” esan du ARGIAko orrialdeotan

EAJren “arantzak”

EAJren “arantzak” Irungo Ogasunean ageri dira. Iruzurra bost milioi eurokoa da. EAJk kudeatutako Gipuzkoako Foru Aldundiak “berea zalantzarik gabeko kudeaketa” izan dela dio, baita Batzar Nagusietako talde guztiek kontuak ikuskatzea izanen dutela esan ere. “Arantzak” eta “zalantzak” bat omen datoz balantzan. EAJrentzako zalantza-balantzak

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a




Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

HIPOTESIAK ETA FAKTURA



Aspaldiko urte hauetan, ikasle izan ditudan guztiei irakatsi diet neuk ere soziologiarako, giza –eta gizarte– zientzia guztietarako aspaldi ikasi nuen maxima: gauzak ez dira diruditena. Iduri dutena eta direnaren arteko korrespondentzia ezak eskatzen du zientzia. Diruditena balira, zertarako ikertu?

Baina, zer da gertatzen ari dena? Nik neuk behintzat ez dut ulertzen eta zaila egiten zait esaten dizkidaten gauzetan sinesmenik edukitzea. Gezurretan ari direnen artean, egia ezin esanik dabilzanen artean, botere joko bortitzak praktikatzan ari direnen artean, eta beste hainbat irakurketa interesatutan bideratzen ari direnen artean... esaten diren guztietan, non dago egia izpirik? Ez dut espero inork kontatuko didanik, baina esan diren hain bide bakarreko argudio sinpleegiek erakusten dutena baino gehiago estaltzen dute.

Guzti honen ondorioz, dakigun gauza bakarra, norena den erantzukizuna jakin gabe, jende ugari ezingo duela botorik eman, batez ere 133 herri txikita-

koek. Beste batzuetan, zergatik bai? Alderdien legearen muga, kalkulua, estrategia, oreka ezegonkorrak, PSOEren barne gatazkak, negoziazioa, emaitza neurtuak, herri txikien sakrifizio behartua? Demagun egungo egoera negoziazio neurtu baten emaitza dela, orduan zertarako hainbeste zalaparta eta gainontzeko alderdiei erantzukizuna egotzi? Demagun PSOEren interesen neurritik hartutako erabaki aldebakarrekoa dela, orduan zertarako enbidoak hordagoen tokian? Demagun, batzuk eta besteek badakitela, edonola ere, ETAK berriro ekiteko erabakia hartua duela. Orduan, zertaz ari gara?

Zerbaitek ez du koadratzen, baina hipotesi modura erantzuleak, inon egotekotan, negoziatu dezaketenen –edo dutenen– artean baino ezin dira egon. Gainontzekoa, antzezpen hutsa. Irlandakoak erakusten du aurrerapauso bat ematean datzala nahaste honen irtenbidea eta hori inork ezin du eman euren orde, euren ausardiaren esku dago, inplosio kontu bat da, eta nahitaez Batasunaren ordezkari politikoei egin behar dute. Euren ausardia ezaren faktura ezin du gizarte guztiak ordaindu.

Xabier Aierdi

Jon Jauregiren inguruko aferarekin hasi ziren jada. Demokrazian, jakina, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, inputatuak errugabeak dira. Demokrazian, gainera, justizia berez mantso doa eta jaunkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira. Asmatzeko baina, demokrazian aritu behar duzu.

Hogeita hamar urteko demokrazia joan da, baina oraindik ere normalizazio politikorik gabeko hauteskundeak bizi ditugula ondorioztatu dezakegu. Normalizazio politikorako bidean funtsezko ziren –edo behar luketen– hauteskunde hauetan, herriarrok funtsezkoa ezagutzetik urrun gaude. Normalizazioa lortu beharrek –bake eta normalizazio beharrek– normaltasuna estaltzen du.

Nafarroako Parlamentua eta udalak

Normalizazio beharrek normaltasuna eskatzen du. Normaltasuna, herritarrok alderdien programak –tokian tokiko hezkuntza, osasungintza edota hirigintza, besteak beste– ondo samar eta gertutik ezagutzea da normaltasun politikoa. Gurean, normalizazio ezak herrietako politikaren ezagupena aldentzen du.

Alta, asko eta ezberdinak dira hautatu beharreko foro demokratikoak.

Gurean, Nafarroako Parlamentua gailentzen da besteen gainetik. UPNko Gobernuaren alternatiba gauzatuko ote den esperantza daukate oposizioko alderdiek. PSN eta Nabairan aukerak balantzaren gainean ezarri dira, inkesten balantzan hasteko. Inkesten jokoan ez da ANVren aukera ordea –ezta ASrena ere–, hauen zerrenda baliogabetua izan baita. Iruñeko Udalako ANVren zerrendak baimena jaso du ordea, alegia “toleratua” izan da. Zerrenda hau “legaltasunaren” muga dago nonbait, Parlamenturako zerrenda ez. Alderdi guztiek onartu dute egoera, baita ANVk berak ere. Puntu horretara iritsita, hogeita hamar urteko “demokrazia” honek alderdi guztiak berdindu edo homologatu dituela ondorioztatu dezakegu, baita ere.

**ANVren auzian, botere
legegilearen eta botere
eragilearen arteko erabateko
adostasuna eman da.
Epaileen erabakia aho
batekoa izan da**

EAEko udalak nahiz aldundiak

Hamaika dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foro demokratikoetarako –udalak nahiz batzar nagusiak– aukeratuko diren zinegotziak eta biltzarkideak. Nafarroan bezala EAEn ere, alderdi bat bera ere ez da demokrazia honen normaltasunarekin guztiz konforme. Batetik, legez kanpo geratu diren ANV nahiz ASren zerrendak daude, herritarren zerrendak ere deituak. Izan ere, Nafarroan bezala EAEn ere, bitxia da ANVren zerrendekin epaileek hartutako erabakia. Eta bitxia da ere Gipuzkoan, konparazione, Urretxuko zerrenda legezkota izatea eta Zumarragako ez. Halaber, zergatik Hernani, Arrasate edo Errenteriako zerrendak legezkotak dira eta beste hainbat herritakoak ez? Bestetik, gainerako alderdiak kanpaina ekitaldietan hainbat herritarren erasoak jasaten ari dira. Zaila da, beraz, batekoen nahiz bestekoaren programak normaltasunez ezagutzea.

Hala ere, alderdiak kanpainen ari dira. Eta kanpaina honek baditu berezitasunak. Nagusia, hasieran aurreratu dugunez, duela lau urte ez bezala, ezker abertzaleko herritarren zerrenden –guztiz baliogabetuak geratu



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

“Arantzak” eta “zalantzak” bat omen datoz balantzak. EAJrentzako zalantza-balantzak Jon Jauregiren inguruko aferarekin hasi ziren jada. Batasuneko kide eta abokatu Jone Goirizelaia “demokraziarik gabeko udalik ez osatzeko” eskatu du.

gabe— erdia edo, onartuak izatea ANVren izenean.

EAJ eta EA oraingoan koalizioan ez aurkeztu izana da bigarren berezitasuna. Normalizazioaren seinalea edota normaltasun nahia izan daiteke, EAKo sektore batentzat bereziki. Hautestontziek esango dutenaz gain, hauteskunde osten —maiatzaren 27az geroztik— bi alderdi hauen artean izanen diren akordioak oso esanguratsuak izanen dira datozen urtetako politikaren norabidean, baita bake eta normalizazio politikoaren bideak nondik nora urratuko diren ezagutzeko ere.

Batzuek dioten bezala, egia bada EAJ eta PSOE elkar hartuta ari direla, Gasteizko Udalean eta Arabako Foru Aldundian alternatibak gauzatu litezke EAJren eta PSE-EEren akordioaren ondorioz. Beste batzuek dioten arabera, aldez, normalizazio bidea

Eusko Legebiltzarrean gobernatzen duen hirukoaren (EAJ, EA eta EB) bidean gauzatuko da. Areago, hirukoa ezezik, laukoa izan liteke normalizazioaren bermea, Aralar alderdia litzateke laugarrena.

Hauteskunde hauetan hirugarren berezitasuna EB-Aralar koalizioa da. Kasuon ere, hautestontziek ezker berri bat sortzeko abagunerik dagoen agertuko dute maiatzaren 27aren biharamunean. Alabaina, ezker berria izanen bada, ezker honek alternatiba sendoak eskaini beharko ditu etxebizitzaren, etorkinen, errauste planten edota AHTren arazoak konponbidean jartzeko. Ezkerreko politika bakarka landuz edo lauko gobernuak osatuz herri foroetan? Hori dilema! Ezkerraren dilema. Hogeita hamar urtetan, oro har, ezkerak ez baitu gobernatu euskal erakundeetan.

Normaltasuna “neurrian”

Alderdien Legea “neurrian” bete dela adierazi du Espainiako gobernu buru Zapaterok. Juan Carlos I.a Espainiako errege eta estatuburuak —Irlandako bake eta normalizazio prozesua hizpide— hemen ere “saia-tu beharra dago” esan du, bere kasa—gure uste hutsa hau ere— eta Espainiako auzitegiak ANVren gaineko ebazpena aztertzen ari zirenean.

Berriki, Espainiako auzitegiek Abertzale Sozialisten Batasuna (ASB) alderdi berria ez onartzea erabaki dute. Dena “neurrian”, tamainan, gutxi gorabehera, demokraziaren bideak ezin jakinezkoak edo asmatuzkoak baitira. Jakina, den-dena ez dago lotuta, baina den-dena ere ez da alderdi politikoek erakutsi nahi diguten bezain deslotua. ■

Txapelak
buruan
to ibili munduan







Narrika, 18. Donostia

telf. 943428299 www.txapelaburuan.com